



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

Martxoaren 23ko 48/1999 Foru Dekretua, kartografia zerbitzuak ematearen ziozko prezio publikoaren zenbatezko osagaiak aldaraziko dituena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren helburuetariko bat Hirigintza Sailak prestatu eta argitaratutako kartografiaren aldakien salmentaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoaren ezagutza zabaltzea da.

Kartografia zerbitzuak ematearen ziozko prezio publikoa ezarri eta horren araupeketa garatu zuen azaroaren 16ko 114/1993 Foru Dekretuak, martxoaren 10eko 34/998 Foru Dekretuaren bidez aldarazia izan zenak, prezio publikoa zehatzen duten zenbatezko lau osagaiak bildu zituen.

1998ko ekitaldian hainbat lan burutu dira, bi kartografia lan berriren agerpena ekarri dutenak, Enkartazioei eta Arratia eta Orduñari buruzko mapak hain zuzen ere, eta ekoizpen horiek kartografia zerbitzuak ematearen ziozko prezio publikoa ezarri eta horren araupeketa garatu zuen azaroaren 16ko 114/1993 Foru Dekretuan sartu behar dira.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko Titularrak proposatu eta Foru Aldundiak 1999ko martxoko 23ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

## **XEDATU DUT:**

### **Artikulu bakarra**

Kartografia zerbitzuak ematearen ziozko prezio publikoa ezarri eta horren araupeketa garatu zuen azaroaren 16ko 114/1993 Foru Dekretuaren laugarren artikuluko 5 idatz-zatia aldarazi egin da eta honelaxe geratu da idatzita:

### **4.5. Mapa argitalpenak**

		Pta./Aleko
Bizkaiko mapa	E1/100.000	522
Bizkaiko mapa zuzentzailea	E1/50.000	464
Ibaizabal ibaiko mapa	E1/10.000	1.354
Uribe-Kostako pasabideko mapa	E1/10.000	824
Mundakako ibaiko mapa	E1/10.000	922
Ibaialdeak-Durangoko mapa	E1/10.000	1.377
Elantxobe, Lekeitio eta Ondarroako erlaitzeko mapa	E1/10.000	1.259
Bilbo Uribe eta Ezkerraldeko mapa	E1/10.000	1.614
Bizkaiko erlaitzeko mapa	E1/100.000	3.915
Enkartazioetako mapa	E1/20.000	1.242
Arratia eta Orduñako mapa	E1/20.000	1.316



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

Martxoaren 23ko 48/1999 Foru Dekretua, kartografia zerbitzuak ematearen ziozko prezio publikoaren zenbatezko osagaiak aldaraziko dituena.

### **AZKEN XEDAPENAK**

Ogasun eta Finantzen foru diputatuari baimena emana zaio, foru dekretu hau garatu eta ezartzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan.

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 1999ko martxoaren 15az geroko ondoreak izango ditu.

Bilbon, 1999ko martxoaren 23an.

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUA

AHALDUN NAGUSIA

FERNANDO OLMOS BARRIO

JOSU BERGARA ETXEBARRIA